



Beñat GAZTELUMENDI
Bertsolaria

Hogeita lau

Hogeita lau egun bete ditu abuztuak eta hirurogei gau udak. Agenda berriak paper itsatsi be-

rriaren usaina dariela pilatuta daude inprentetako atarietan. Irakurri gabeko egunkariak, erantzun gabeko mezuak eta gerokoaren gerokorako utzitako post-itak zain daude bazterretan. Eta hemen gabilta gu oraindik, udako ibilera arinago, lanbrotsuago eta pausatua goan murgilduta, itsaso zaballean igerian nola, gure taupada eta arnasa ez den guztiarekiko itsu, mutu eta gor. Sanjuane-tan itxi genituen pertsianak, eta eguzkitan azala goxatu nahian gabilta ordutik, sugandilen aldamenean etzanda.

Kanpoan euria ari du, bortizki. Berrogei mila haur eta heldu hil ditu Israelek Gazan; izurriteek astindu dute Afrika eta Pablo Gonzalezi ez diote pasaporterik itzuli. Lantegiak itxi eta langileak kaleratu dituzte, basoak erre, eta boterearen dendaos-teetan eskuin muturra hariak lotu eta lotu ari da, gu txotxongiloek begira entretenitzen garen bitartean. Izututako mundu honi arantzak atera zaizkio, eta bere burua zauritzen du azkura egiten duen bakoitzean.

Hogeita lau egun bete ditu abuztuak eta gorputzean halako neke bat sumatzen hasi zara ezustean, errutinari ihes egiteko hartu dituzun ohiturak ere errutina bilakatzen ari zaizkizun seinale. Gauek azkarregi egiten dute gelako pertsianetatik ihes; lotan harrapatzen zaitu goizak, irailetik ekainera galdutako lo orduak berreskuratu ezinik bazenbiltza bezala, iza-



Uda eta gero, bizitza deitzen zenuen horrek bere lekuan jarraituko ote du? Iñigo URIZ | FOKU

rari begi pareraino tira eta tira, ordulariari zuganaino iristen utzi nahi ezta. Tira eta tira udari, pixka bat gehiago luza dadin: ordu erdi bat, egun bat, aste bat, berdin da, baina pixka bat gehiago, besterik ez. Ez duzu irailik nahi; kafe asko dauzkazu zorretan oraindik, afari asko, elkarrizketa asko. Orain dela urte batzuk lagun eta plan guztientzat denbora izaten zenuen, baina orain astunago sentitzen duzu zure burua, motelago, denera ezin helduta. Horregatik ari zara izarari, abuztuari, tira eta tira, pixka bat gehiago, pixka bat baino ez. Eta tira eta tira, behatz puntetan goizaren hortzikara nabaritu duzu azkenean.

Hirurogei gau bete ditu udak eta plastikozko edalontziak sasi bilakatu dira kaleetan. Kale-garbitzaileen kamioia egunsentiarekin batera ailegatu da. Ez duzu irailik nahi, ez duzu pertsianarik zabaldu nahi; beldurra diozu kanpoan egon daitekeenari. Entzun ez arren, hormen eta kristalen kontra lehertu diren zaparraden dararizoa nabaritu duzu zure gorputzean. Baina, inori aitortu ez badiozu ere, zure bazter ezkuturen bat desiratzten dago jakiteko ea uda desagertzen denean, plastikozko edalontziak erretiratzen dituztenean, bizitza deitzen zenion horrek utzi zenuen lekuan jarraitzen ote duen. •